



2008rako SOLDATA IGOERA EGUNSENTIRA ARTE NEGOZIATZEKO PREST ETA GERO TRANPA!

1.- MAHAI OROKORREKO IGOERA

Dakizunez, EAEko mahai orokorrean Eusko Jaurlaritzako Administrazio Publikoko (Irakaskuntza, Osakidetza, Justizia, Administrazio Orokorra, Ertzaintza, ...) sektoretako arazo estrukturalak zein langileen baldintzak negoziatzen dira: zerbitzuen privatizazioaren galga eta hauen balizko itzulketa, soldata igoerak, langile eta zerbitzuen euskalduntzeko planak, enpleguaren kalitatea, prekarietatea, aukera berdintasuna, lan osasuna, ...

Administrazioak azken urteotan soilik soldata igoeraz hitz egiten du, gainerako gaiak behin eta berriro alboratuz. Testuinguru honetan aurten berriro ezein sindikatuk ez du soldata igoera besterik ez zuen biltzen akordiorik sinatu, eta Ibarretxeren ardurapean dagoen Administrazioak "egunsentira arte negoziatzeko prest gaude" estiloaren antipodetan dagoen txuleriarekin soldata igoera jasotzen duen dekretuz negoziazioa itxi du.

Komunikabideetan entzun eta irakurri dugunaren arabera, dekretuz inposatzen zaigun soldata igoera hori, %4'2koa da, KPI adinakoa, gehi beste %0'5 ordainsari diferituan, Itzarrirako alegia. Baina emeki azter dezagun, zenbakiek tranpa baitute.

Aurreko urtetan izandako soldata igoeratan hurrengo urteko soldata igoerak baldintzatzeko portzentajea egon da, akordiorik egotekotan kontsolidatu egiten zen, baina akordiorik izan ezean portzentajea galtzen zen. Horrela, 2007 urtean 2006ko soldataren %0'33a ez genuen eskuratu, eta aurten ez dugu eskuratuko 2007ko soldataren %0'5a. Beraz, %4'2ko igoera hori gure nominetan %3'68a bilakatuko da.

Gure nominetan (otsailekoan jasoko dugu) igoera hau horrela islatuko da:

- ❖ %2a oinarrizko soldatan, antzinatasunean eta lantoki osagarrian.
- ❖ %1a aparteko pagetan berezko osagarriaren %50 kobratzeko (2009an %75a, 2010ean %100a).
- ❖ %1'2a aparte joango den atalean (Administrazioaren hobekuntza eta modernizazioa). %1'2 hau 2009an kontsolidatzeko akordioaren baldintzapean dago.

Irakasle laboralen kasuan, urteko 14 paga berdinak izango dituzte, oinarrizko soldatan eta antzinatasunean %3a jasoko dutelarik, eta aparteko atalean %1'2koa.

2.- 2007KO SEIURTEKOEN KAPITALIZAZIOA

Iragan urteari seiurtekoek zenbat diru sortu duten kalkulatu ondoren, langile bakoitzari 149,72€ dagozkio, eta kantitate hau ere otsaileko nominan eskuratuko dugu.

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparaldean
Fermin Lasuen, 13 behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zemarkalea, 62 behea 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	Martzelo Zelaieta 75, 2-A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	7 Coursic KARRIKA 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org